



OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.04.25

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Arantzako udalerrian etxez etxeko teleirakurketarako kontagailuen telekudeaketa, sektorizazioa eta instalazioa ezartzeko hornidura kontratuaren plegu arautzailearen eta lizitazio prozeduraren onespena.
3. Alkate Ebazpenak.
4. Eskaerak eta galderak.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2025eko martxoaren 28ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. ARANTZAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXKO TELEIRAKURKETARAKO KONTAGAILUEN TELEKUDEAKETA, SEKTORIZAZIOA ETA INSTALAZIOA EZARTZEKO HORNIDURA KONTRATUAREN PLEGU ARAUTZAILEAREN ETA LIZITAZIO PROZEDURAREN ONESPENA.

Idazkariak Arantzako udalerrian etxez etxeko teleirakurketarako kontagailuen telekudeaketa, sektorizazioa eta instalazioa ezartzeko hornidura kontratua arautuko duen plegu arautzailea azaldu du. Horri dagokionez, 2025eko apirilaren 25eko idazkari-kontuhartzailearen txostenean



ARANTZAKO UDALA

xedaturikoaren arabera, izapidetu nahi den kontratuaren lizitazioa araudiarekin bat datorrela adierazi du.

Lizitazioari dagokionez, hauek dira nabarmendu beharrekoak:

- Kontratu mota: hornidura.
- Lizitazio-prezioa eta balio zenbatetsia: 165.204,15 €.
- Prozedura mota: irekia (arrunta).
- Exekuzio epea: 4 hilabete.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 20 egun natural.

Horregatik guziagatik, idazkariak azaldu du Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 138.4. artikuluan xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurak aipaturiko plegu arautzaileak onartu ditzazkeela, lizitazio prozedurari hasiera emanez.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Arantzako udalerrian ethez etxeko teleirakurketarako kontagailuen telekudeaketa, sektorizazioa eta instalazioa ezartzeko hornidura kontratua arautuko duen plegu arautzaileak onestea, lizitazio prozedurari hasiera emanez.

2.- Lizitazioaren iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

3. ALKATE EBAZPENAK.

2025eko 50etik 71ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

4. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:05 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte